

2.– TXIMIÑOIAK

Toki batzutan tximiñoiak pizti politak izaten dira. Titi deritxona txiki-txikia da eta gizakien eskuetan pozik egoten da.

Beste tximiñoi batzuk larrosa-koloreko ulea dauke, illuntxuagoa, eta buruan ulezko buruñurdua. Benetan ederrak. Beste batzuk orlegiz jantzita dagoz. Beste batzuk gorputz-atal aundiak daukez eta buztana be luze-luzea. Onek bistagarren esku baten besteko laguntza emoten dautse, esaterako igaliak artu eta agora eroateko. Zaurituten ba dabe, buztanagaz zugatzetik eskegita geratzen dira.

Tximiñoi-motarik geienak zugatzetan bizi dira. Brasil eta Guaiana'ko basoetan dagozenak orroaka ibiltzen dira egun guztian. Eta orregatik deritxoan orroegilleak.

Batzuk gautiarrak dira eta gabontzaren antzeko musturra dauke. Oneik egunez lo egiten dabe zugatz-zuloetan. Jateko arrapatzen dabez inditarrak.

Ba-dagoz buztanbakoak diranak be, eta oneixek dauke gizakiaren antzik geien. Eta euren artean mota bakar bat dago anka biren ganean dabillena, Asia'n bizi dan "jibon" mota., baiña zutunik egiteko eta ibilteko beso biak buruaren atzetik zearkatu bear dauz. Benetan baragarria da.

Gure inguruko piztitegietan "makako" deritxoña da ezagunean. Orangutan izenak "basa.gizona" esan gura dau.

Zurrik luzeena daukenak, 17 zm., Borneo'n bizi dira.

Mandril anker aundiak margorik argiena musturrean dauka eta txinpanze tximiñoirik onena da. Onexek dauko gizonaren antzik geien buruan.

Baiña aunditasunean guztien gaiñetik dagoana "gorila" motakoa da.

Begiratu basoko zoko illun aretara, odoldiz beterik dagozan zugatz-adarren azpian, pizti bat dago, zugatz-orpoan jesarrita sabel aundiaren gaiñean eskuak dituala,



Zoragarria tximinoien mundua.

illunabarreko zaratak entzungurean. Ulea ta musturra baltzak daukoz. Begiak illunak eta zabal-zabalik. Basoko piztirik ankerrena da. Eta zugatzaren abar lodietan, urkulluan, berak egindako abi baten, emea dago umeakaz. Orregatik dagoz esandako begiak dizdiz. Pizti anker batenak ete dira? Ez ete da basoan aurrean erabilli eta arerioengandik iges egin dauan basa-jaun batenak?

Zutundu egin da pizti erraldoi ori! Anka okertuen gaiñean dago. 1'80 aundiarea eta 200 k pisua. Arriskuren bat somatu ete dau? Zarataren bat entzun bear ba da?

Orbelak batu eta onein atzean ezkutatu gura dau. Baiña asmoa aldatu eta orbelak eta abarrak bota ditu. Bere begiak su biurtu dira eta ikubillakaz bere bularra jotzen dau. Eta inguru guztia ikaratzeko lako garraziak egiten dauz. Beste orroa illun batek erantzuten dautso. Basoetako basurde bakartia ta bekoki-illuna da.

Basurdea bere bidetik doa eta barealdia sortu da.. Gorila isildu eta biotza baketu jako. Iretargia zeruan dizdiz dago eta diñotso gorilari: Jaun baltza! Zu zaintzen naukazu!

**MARGO EDERDUN ENTZIKLOPEDIA'tik
OLAZAR'tar Martin'ek moldatua**